

## UE-MERCOSUR STOP! ELIKADURA EZ DA MERKANTZIA

Bizkaiko EHNEk eta Bizkaiko ENBAk mobilizazio bat deitu dute Bilbon urtarilaren 29rako, nekazaritzako sindikatuen mobilizazioen testuinguruan. Traktoreak kalera itzuliko dira Europako Parlamentuari EB-Mercosurren akordioa baztertzeko eskatzeko, eta bat egiten dugu mobilizazio ziklo berri honekin, UE-MERCOSUR STOP! oihukatzeko. Traktoreak zutabe ezberdinetan abiatuko dira lurralde osoetik, San Mames futbol zelaiaren aurrealdean bildu eta Arriaga antzokirainoko ibilbideari ekiteko.

2024ko nekazaritza protesten boladan, Europar Batasunaren (EB) merkataritza libreko programa irmo salatu genuen, eta EBren eta MERCOSUREn arteko merkataritza libreko negoziazioak gelditzeko eskatu genuen. Merkataritza akordio horrek nekazaritza sektorea trukerako txanpon gisa erabiltzen du, beste sektore batzuen mesedetan, hala nola automobilgintzaren mesedetan, berrindustrializazio prozesu berri bat indartzeko aitzakiarekin. Hala ere, kontraesankorra da berriro ere Europa desindustrializatzera, munduko lehia handitzera eta beste lurralde batzuetako baliabideak harrapatzeko joerara eraman duen estrategia berean sakontzea.

Estatu Batuek 2025. urtearen hasieran hasi zuten gerra komertzialak munduko merkataritzaren oinarriak aldatu ditu. Nahasmendu horrek funtsezko gai bat planteatzera behartzen gaitu: Zer merkataritza eredu behar dugu gero eta ezegonkorragoa den mundu batean gure oinarritzko beharrak asetzeko? Gerrek, pandemiek eta merkataritza politikek agerian utzi dute elikadura kate globalizatuaren kalteberatasuna, eta horrek erakusten du beharrezkoa dela elikadura burujabetzan oinarritutako merkataritza esparru bat ezartzea eta osagarritasunean oinarritutako elikadura eredu komertzial berri bat artikulatzea.

### Zergatik gaude UE-MERCOSUR akordioaren aurka

- Nazioarteko merkatuak indartzeak barne merkatua ahultzen du eta belaunaldien arteko erreleboa oztopatzen du. Nazioarteko merkatuen liberalizazioa da, neurri handi batean, nekazaritza sektorearen egungo egoeraren arrazoia: prezio baxuak, belaunaldien arteko erreleborik eza eta ekoizpen sektoreetan gero eta orokorragoak diren osasun eta ingurumen arazoak.
- Lehiakortasuna bilatzeak kalte egiten dio nekazaritza txiki eta ertainaren errentagarritasunari. Eskala handiko nekazaritza ekoizpena (Mercosur herrialdeak) ez da bateragarria Europako ekoizpen ereduarekin.
- Merkatuak desarautzeak prezioen aldakortasunaren testuingurua gero eta iraunkorragoak bihurtzen ditu; eta horrek eragin zuzena du nekazaritzaren prekarietatean, soldadari, lan baldintzei eta lan egindako orduei dagokienez.
- Ekoizpen sektore tradizionalak, hala nola haragiak, eztiak, zerealek, arrozak..., eragin handia izango dute. Adibidez, gaur egun EBk inportatutako behi haragi guztiaren % 58 Mercosurretik dator. Inportazio horien hazkundeak zuzenean eragingo die ustiategi txiki eta ertainei.

- Krisi klimatikoak larriagotzen jarraituko du; akordio hori ez da bateragarria Itun Berdearekin eta Baserritik Mahairako estrategiarekin; gainera, agroekologian oinarritutako eredu iraunkoragoetarako trantsizioa ahultzen du.

#### Zer proposatzen dugu:

- Europako Parlamentuari eskatzen diogu bere erantzukizunak bere gain har ditzala, eta bete dezala 2018ko akordioa, non horrelako akordioak EBko estatu kideetako organo gorenak eta Europako Parlamentuak berak baliozkotu behar dituzten. Dei egiten diegu Legebiltzarreko legebiltzarkideei bere egin dezaten nekazaritza sektorearen gehiengoaren ahotsa, EB-MERCOSUR akordioaren aurka.
- Aldi berean, estatu kideei eta haien ordezkariak dei egiten diegu nazioarteko elkarriketa bat susta dezaten, elikaduraren merkataritza errotik eraldatzeko. Munduko merkataritza esparru berri bat eraiki behar dugu, herrialdeen elikadura burujabetza errespetatuko duena eta biodibertsitate produktiboa zainduko duena. Elkartasunaren, lankidetzaren eta bidezko merkataritzaren balioak berreskuratzea da elikadura osasuntsu baten eskubidea bermatzeko oinarria.
- Europako Nekazaritza Politika (NPB) diseinatzea, aurrekontu sendo eta berezitua izango duena, ekitatez banatuko dena, merkatuaren erregulazioa integratuko duena eta trantsizio agroekologikora zuzenduko dena.
- Barne merkatua indartzea, ekoizpena kontrolatzeko mekanismoen bidez, eta produkzio trantsizio baten aldeko apustu irmoa egitea, Itun Berdearen eta Baserritik Mahairako strategiaren esparruan. Eta, aldi berean, plangintza ausartak eta mekanismoak antolatzea belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko eta nekazaritza jardueran pertsona berriak sartzeko, erosketa publikoaren bidez tokiko elikadura sustatzearekin batera.
- Euskal alderdi politikoei dei egiten diegu proposamen horiek defendatu eta garatu ditzaten, bai tokiko gobernuei dagokionez, bai Europako erakundeetan. Ez da koherentea belaunaldien arteko erreleboaren aldeko apustua egitea eta, aldi berean, merkataritza libreko akordioak onartzea; ez Europan, ez eta Euskal Herrian.

Bizkaian, 2026ko urtarrilaren 21a.

*Oharra: datorren astean agerraldi publiko batean azalduko ditugu traktoreen zutabe ibilbideak zeintzuk izango diren (aste honetako asanbladetan zehaztuko dira), eta beste hainbat berri ere eguneratuko ditugu.*

*Informazio gehiagorako:*

*Unzalu Salterain 672 23 38 08*

*Karlos Ibarrondo 656 78 57 90*